



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 5a

145. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazio bermatuetako itxarotzerrenden bermeei eta gardentasunari buruzkoa. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Noingo Elortzibar DBHIren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan. Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan. Osasun Batzordean izapidetzea (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan sala ditzan Foru Komunitatean gertatutako ekintza bandalikoak, eskuin muturreko izaera politikokoak. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Elhadji Ndiaye senegaldarraren atxiloketaren eta Polizia Nazionalaren Iruñeko polizia-etxean hilik gertatu izanaren inguruar bar guztiak argitzea nahi duela. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala egiteko proposamena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitatea zoriontzin baitu Quacquarelli Symonds-ek egindako unibertsitateen enplegagarritasun-rankinean lortutako tokiarengatik. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu errefuxiatuak Espainiara lekualdatzeko prozesua azkartzera. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (14. or.).

—Galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza planean sexu-indarkeria artatze aldera hartutako neurriei eta berariazko baliabideei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).

—Galdera, Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (15. or.).

—Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernuak premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (16. or.).

—Galdera, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).

—Galdera, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (18. or.).

—Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).

—Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarteen edo lehen sektoreko kolektiboan aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharri buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan eginen dituen jarduketei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

—Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharri buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).

—Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).

—Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).

—Galdera, Geoalcali S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (23. or.).

—Galdera, Edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazio bermatuetako itxarote-zerrenden bermeei eta gardentasunari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak foru lege proposamena aurkeztu du, Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazio bermatuetako itxarote-zerrenden bermeei eta gardentasunari buruzkoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazio bermatuetako itxarote-zerrenden bermeei eta gardentasunari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazio bermatuetako itxarote-zerrenden bermeei eta gardentasunari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak lehenengo aldiz ezarri zuen Nafarroako herritarrek eskubide subjektiboa dutela administrazio publikoengandik gizarte prestazioak jasotzeko. Eskubide hori orobat mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat bilduta dago Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean.

Aipatutako Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 19.1 artikulua ezartzen du Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan zehaztuko direla gizarte zerbitzuen sistema publikoak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatuko dituen prestazioak. Artikulu horren 3. idatz-zatiak xedatzen du zorro horretako prestazio bermatuak eskubide subjektibo gisa izanen direla exigitzekoak hartan ezarritako baldintzetan, eta zorroan ezarri beharra dagoela eskubide hori behin aitorturik zer epetan baliatu ahalko den Administrazioan, eta azken horrek erantzuten ez badu, administrazioarekiko auzi-jurisdikziora jo ahalko dela.

Baldintza eta epe horiek Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan jaso ziren.

Hartara, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak eskubide subjektibo perfektu bat aitortzen du, eskubide hori auzitegietan exigitzekoa baita; alabaina eskubide horretaz baliatu ahal izateko eskatzen da ezarritako sistema eta erregistroak ahal den guztian aprobetxatzea eta ahal den informazio eta gardentasun gehiena eskaintzea, eska-

tzaileek lehenengo unetik zehaztasunez ezagut ditzaten eskaera egiten denetik ebazpena ematen den arte dauden epeen zenbaketa.

Foru lege honek, horrenbestez, bermatu nahi du herritarrek, oro har, eta banakakoek, zehazki, beren eskaerak epearen barruan ebatz daitezten daukaten eskubidea, bai eta epe hori gainditzen duten prestazio-eskaerak lehentasunez ebatz daitezten eta itxaronaldiaren egiazko egoera ezagutzeko daukaten eskubidea ere.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da gizarte zerbitzuen sistema publikoko gizarte zerbitzuen hartzaile diren pertsonen ematen zaien arretan erantzuteko bermeak eta gardentasuna ezartzea.

2. artikulua. Pertsona onuradunak.

Foru lege honetan ezarritako bermeen onuradunak izanen dira ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan prestazio bermatu bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

II. KAPITULUA Prestazioen bermea.

3. artikulua. Emateko epea.

1. Toki entitateek Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren I. eranskinen (oinarrizko osasun laguntza) A letran jasotako prestazio bermatuak eman beharko dituzte, hartan ezarritako epeetan.

Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuak Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren I. eranskinen (oinarrizko osasun laguntza) A, B, C, D, E, F eta G letran jasotako prestazio bermatuak eman beharko dituzte, hartan ezarritako epeetan.

Berdintasunaren arloan eskuduna den departamentuak Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroaren I. eranskinen (oinarrizko osasun laguntza) H letran jasotako prestazio bermatuak eman beharko ditu, hartan ezarritako epeetan.

2. Foru lege honetan xedatuaren eraginetarako, ulertuko da honako hauek eman beharko direla:

- a) Oro har, onuradunak eskatutako prestazioa.
- b) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, Banakako Arreta Programan jasotako prestazioa edo prestazioak.

e) Oinarrizko osasun laguntzako programaren batera deribatzea eskatzen duten prestazioen kasuan, programa horretan ezarritakoak.

4. artikulua. Epeak etetea.

Administrazio prozedura erkideari buruzko araudian ezarritako arrazoiengatik eten ahalko da prozedura ebazteko gehieneko epea. Etetearen arrazoa baldin bada interesdunari akatsak zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko errekerimendua egin zaiola, epe hori soilik etenen da prozedura ebazteko nahitaezko dokumentazioa eskatzen den egunetik hasi eta hura aurkezteko ezarri den epea amaitzen den egunera arte. Epea iraganda epeak berriz zenbatzen hasiko dira, nahiz eta interesdunek akatsak zuzendu ez edo eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez, eta pertsona horiek eskatzaile gisa hartzen jarraituko da eskaera largesten edo artxibatzen ez den bitartean.

5. artikulua. Berme-sistema.

Administrazio-isiltasunaren eraginak eragotzi gabe, ebazteko gehieneko epeak gainditzeak berarekin ekarriko du eskaera lehentasunez ebazteko betebeharra eta eskatzaileek hori balioarazteko daukaten eskubidea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko 19.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

III. KAPITULUA Gardentasuna

6. artikulua. Herritarrei informazioa emateko sistemak.

1. Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak hilerio informazioa emanen du, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez, prestazio horiek eskuratzeko itxaronaldiei buruz.

2. Ondorio horietarako, webgune horretan argitaratuko du herritarrek eskubide dituzten prestazio bermatuen zerrenda, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17eko Foru Dekretuan haiek emateko ezarritako gehieneko epeekin.

3. Halaber, honako hauek emanen ditu argitaratuko du hilabete bakoitzeko lehenengo egunean dauden eskatzaileen kopurua; egun horretan prestazio bakoitzerako dagoen batez besteko itxaronaldia; eta, ezarritako epeak gainditu direlako, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroko prestazio bermatu bakoitzerako itxarote-zerrendan dauden eskatzaileen kopurua.

Batez besteko itxaronaldia kalkulatzeko, deskontatu egingen dira espedienteetan ebazteko gehieneko epea etenik duten aldiak.

4. Oinarrizko osasun laguntzako prestazio bermatuen kasuan, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzak emandako informazioa jasoko du departamentuak prestatutako eredu normalizatuaren arabera, eta informazio hori oinarrizko gizarte zerbitzuetako bakoitzaren arabera xehakaturik argitaratuko du.

5. Genero-indarkeriako egoeran dauden pertsonen arreta emateko prestazio bermatuen kasuan, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak jasoko du berdintasunaren arloan eskuduna den departamentuak emandako informazioa, eta informazio hori gainerako prestazioekin batera argitaratzearen erantzulea izanen da.

7. artikulua. txostenak.

Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak urtero txosten bat eginen du, non honako hauek jasoko baititu: urte bakoitzaren azken egunean dauden eskatzaileen kopurua; batez besteko itxaronaldiak; eta, ezarritako epeak gainditu direlako, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroro prestazio bermatu bakoitzerako itxarotzerrendan dauden eskatzaileen kopurua.

txosten hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko da eta Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atarian argitaratuko da urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoan.

8. artikulua. Prestazioak eskatzen dituztenen informaziorako eskubidea.

1. Eskatzaileei egokitu dakizkiekeen bestelako eskubideak eragotzi gabe, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan ezarritako prestazioak emateko eskudunak diren toki entitateek eta departamentuek prestazio bat eskatzen duten pertsona guztiei dokumentu bat eskuratu beharko diete, non eskaera ebazteko gehieneko epea jasoko baita,

bai eta isiltasunaren eraginak eta eskaera epean ebazten ez bada auzitegietan erreklamatzeko daukaten eskubidea ere.

Dokumentu hori eskatzaile guztiei eskuratuko zaie eskaera kasuko erregistroan aurkezten duten unean.

2. Halaber, ebazteko gehieneko epea iraganda, eskatzaileek eskubidea izanen dute organo eskudunari kontsulta egiteko beren eskaera ebazteko epe probableari buruz, eta horri hogeita lau orduko gehieneko epean erantzun beharko zaio.

Lehen xedapen gehigarria. Tresna informatikoen egokitzea.

Nafarroako Gobernuak, beharrezkoa bada, bere tresna informatikoak egokitu ditu foru lege honetan xedatutakoa betetzeko.

Azken xedapenetan lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honen erregelamendu-garapena egin dezan.

Azken xedapenetan bigarrena. Informazio-sistemak abian jartzea eta txostenak egitea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epea izanen du informazio sistemak abian jartzeko eta III. kapituluan aipatutako txostenak egiteko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2017ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Noingo Elortzibar DBHIren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Noingo Elortzibar DBHIren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena:

Noingo Elortzibar DBHIk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetako irakaskuntza eskaintzen du, bai eta curriculum-aniztasuneko programa bat ere. Iruñeko Plaza de la Cruz BHIri atxikirik dago.

Ikastetxe horrek eremu horretako ikasleak hartzen ditu: Elortzibar (Noain, Imarkoain, Elortz, Dorre, Gerendiain, Iharnotz, Zabalegi, Zulueta, Oritz, Otao, Ezperun), Beriain, Tiebas eta zendea.

Hezkuntza-eskaintza –bereziki, D eredukoa– zabalduz joan da San Miguel HLHI Pan Haur eta Lehen Hezkuntzan ezarri zenetik. Matrikula gero eta handiagoa da; hartara, espazio-arazoak egonen dira heldu den ikasturtean, eta 2018-2019 ikasturtean, berriz, egungo eraikinak ezin izanen ditu ikasle guztiak hartu.

Ikasleak inguruko ikastetxeetan eskolatzea onuragarria da ikasleentzat, ikastetxearen eta ingurunerik hurbilenaren arteko interakzioari bide ematen dion aldetik. Izan ere, aurrerabide handia izan da beren seme-alabak D ereduan eskolatu nahi dituzten familiek tokian tokiko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan nahiz eremuko DBHI In eskolatu ahal izatea seme-alabak.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat zehaztu dezan –Noingo Elortzibar DBHIko egungo instalazioen espazioak handitu nahiz eraikin berri bat eraiki–, ikastetxe horrek eremu horretako ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza-erantzun bat emateko moduan egon dadin eta, hortaz, hor eskolatu nahi duten ikasle guztiak hartzeko moduan egon dadin. Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentua premiatzen du egin beharreko obrak egin ditzan, ikastetxe hori 2018-2019 ikasturtean matrikula osoa hartzeko moduan egoteko.

2. Nafarroako Parlamentua Noingo DBHIko ikasleak eskolatuta dauden hizkuntza-ereduen arabera ikastetxe edo eraikin ezberdinetan banatzearen aurka dago; beraz, banaketa hori egitea dakarren konponbide oro arbuiatzen du.

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Agenda Digital berri bat idatz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Agenda Digital berri bat idatz dezan.

Zioen azalpena

Nafarroako Agenda Digitala (2013-2016) aurreko legegintzaldian idatzi zen, Europako Agenda Digitalak eta Espainiako Agenda Digitalak taxutu-tako esparru estrategikoari jarraikiz.

Aurkeztu zenetik lau urte igaro eta gero agendak berriro irakurrita egiazta daiteke, haren asmo ona zalantzan jarri gabe ere, helburuak betetzetik oso urrun gelditu dela eta bost urte baino lehen zaharkitzapen nabarmen bat gerta daitekeela sektore digitalean, neurri asko jada ez direlako beharrezkoak eta beste asko pertsonen, gizartearen, industriaren, enpresaren eta gainontzeko eragilearen berezko inertziak sortu dituelako.

Nafarroako Gobernuak hasiak ditu Agenda Digital baten baitan koka litezkeen hainbat proposamen; horietako asko Espezializazio Adimentsuaren Estrategian jasota daude (S3, ingeleseko "Smart Specialization Strategies" siglengatik), zeina ekonomia-garapeneko eredu baliagarri bat

baita, baina ez baitu jasotzen Agenda Digital batek barnebiltzen dituen pertsonen, kulturaren eta ekin-tza sozialaren gakoak.

Beste erkidego batzuk –beren S3 proiektuak taxutu bidenabar– beren agenda digitalak taxutzen ari dira edo argitaratu dituzte; hor dira Euskadiko 2020ko Agenda Digitala, Errioxa, "Axenda Dixital de Galicia 2020", Asturias edo Espainiako Gobernuak bera, zeinak arloko ministro bat ere izendatu baitu.

Agenda horiek guztiek, garapen ekonomikoko S3 ereduak jasotzeaz gain, arlo digitaleko ekintza politikoa antolatzen dute esparru guztietan, aintzat hartuta pertsonak, beren talentua ustiatuta eta arrakala digitalearen aurkako argudioak jorrotuta, bai eta konektibitateko sarbide soziala edo administrazioaren eta herritarren arteko harremanaren aldaketa ere. Halaber, xedea da gizarte mundu digitalean sartzeko koordinatzea, bai eta prestakuntza ere, bai kulturaren bai hezkuntzaren ikuspuntutik, ekintza zehatzak ezarriz bere unibertsalizatorako.

Agenda digital batean oinarrituta egin beharreko jarduketak bat da 4.0 Industriadun doan gizarte bateko garapen ekonomikoren arloan egindako ahaleginak bateratzea, gizartearen eta, hortaz, eguneroko bizitzan, bizikidetasunean, hezkuntzan nahiz kulturaren gertatzen ari diren aldaketak digitalek eskatzen duten dedikazioarekin, hazkunde sozial eta ekonomiko bat aurreikusiz.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Agenda Digital dinamiko berri bat idatz dezan, bizi dugun garaiarekiko egokitzapenak eskatzen dituen aldaketa etengabeak onartuko dituen, arlo digitalekin lotuta dauden ekintza guztiak barnebilduz, baita departamentuek egindako proposamenak ere, Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eta IKT eskari soziala, irizpide solidario, garden eta inklusiboekin, eta ingurumena ondo kontuan hartuta.

– Agenda Digitalean jaso beharreko jarduerak guztiaren agintari edo arduradun bakar bat ezar dezan, koordinatzearen ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, hezkuntzaren, osasunaren, Gobernu Irekiaren nahiz bizi dugun bilakaera tek-

nologikoarekin zerikusia duen beste edozein arloren gaineko politika.

– Lan-mahai bat era dezan Nafarroako Gobernuko departamentu eta enpresa publiko guztietako ordezkariekin, aldian-aldian ebalua ditzaten gertatu gertatuko diren aldaketak eta berrikuntzak, hartara Agenda Digitalaren agiri bizi bat egonen baita.

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako Batzordean eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Foruzaingoko Joko eta Ikuskizunen Brigadako agenteek Doneztebeko bi ostalaritza-establezimenduren aurkako salaketa jarri zuten iragan asteburuan (azaroaren 19an), herriko jaieran bi adingaberi alkohola emateagatik. Iruñean, berriz, Udaltzaingoa establezimendu baten aur-

kako salaketa jarri zuen azaroaren 13an bi adingaberi alkohola saltzeagatik.

Azaroaren 3an 13 urteko neskato bat hil zen Madrilen, alkohola erruz edateak eragindako koma etiliko baten ondorioz, eta Pontevedran 12 eta 13 urteko bi adingabe ospitaleratu zituzten botiloietan parte hartu eta gero.

Adingabeek gero eta alkohol gehiago edatea eta gizarteak horren aitzinean gero eta permisibitate handiagoa izatea haur-alkoholismoa areagotzea eragiten ari da, horrek berekin dakartzan ondorio larriekin.

Espanian, batez beste 13,9 urterekin hasten da alkohola edaten. Batez besteko bat da. Horrek esan nahi du adin horren azpitiko haur askok das-tatua dutela alkohola. Hamar ikasletik hiruk daukate arrisku-kontsumoa asteburu bakoitzean.

14 urteko haurren % 14,2k hartzen du edari alcoholduneko 5 edalontzitik gora hilabete bakar bateko aldi bakar batean, Bigarren Hezkuntzako Ikasleen Droga-erabilerari buruzko Estatu mailako 2014-2015eko Inkestak jasotako datuen arabera. Ehuneko hori % 24,6koa da 15 urteko nerabeen artean, % 37,1ekoa 16 urtekoen artean, eta % 44,2koa 17koen artean. 18 urtera iristean, erdiak baino gehiagok edaten du (% 50,6). Mozkorraldien eta arrisku-kontsumoen zifrak oso antzekoak dira. Datu deigarri bat da 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteen asteburu-erabileraren arrisku-kontsumoa handiagoa dela nesken artean (% 37,3) mutilen artean baino (% 26,3).

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan, aurretiazko diagnosi bat eta azterlan bat eginez Nafarroan alkohola eskuarki edaten duten gazteen kopurua aztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontrolak areagotu ditzan establezimenduetan, adingabeei alkohola saltzea ekiditeko.

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan.

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldea aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Haur eta Gazteentzako Osasun Mentalaren Zerbitzuaren

hedapen bat ezar dezan Tuterako eta Lizarrako barrutietan. Mozioa 2016ko irailaren 30eko 1171 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan sala ditzan Foru Komunitatean gertatutako ekintza bandalikoak, eskuin muturreko izaera politikokoak.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentutaldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen

baita epaitegietan sala ditzan Foru Komunitatean gertatutako ekintza bandalikoak, eskuin muturreko izaera politikokoak. Mozioa 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Elhadji Ndiaye senegaldarraren atxiloketaren eta Polizia Nazionalaren Iruñeko polizia-etxean hilik gertatu izanaren inguruabar guztiak argitzea nahi duela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Elhadji Ndiaye senegaldarraren atxiloketaren eta Polizia Nazionalaren Iruñeko polizia-etxean hilik gertatu izanaren inguruabar guztiak argitzea nahi du; izan ere, bertsio kontrajarririk daude, informazioa falta da eta Gobernuaren ordezkariak uko egin dio Nafarroako Parlamentuan azalpenak emateari, Parlamentuaren gehiengoak eskatu zion bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du adierazpen hau Diputatuen Kongresuko Mahaiari eta parlamentu-taldeei helaraztea, Kongresuko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat eska dezaten Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Carmen Alba andreak agerraldia egin dezan Diputatuen Kongresuan, senegaldar baten atxiloketaren eta Polizia Nazionalaren Iruñeko polizia-etxean hilik gertatu izanaren inguruabarrei buruz informatzeko”

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala egiteko proposamena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Zer egin dezaket nik euskararen alde?”

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela gutxi arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde bidean jartzen ari gara. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Hizkuntza bazterreko eta zaharkitu gisa ikusia izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukeraber dintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, euskararen eta gaztelaniaren berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, gizartean egoera desberdina bizi dute. Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak.

Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten lehen aldiz Nafarroan Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan

dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: “Zer egin dezaket nik euskararen alde?”

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure espa-

rruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat, euskararen aldeko konpromiso instituzional eta politiko praktikoa bihurtuko dena. Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” galderari erantzunez eta galdera bera nafar gizarte osoan zabalduz”

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguneko ospakizunarekin. Hiesari aurrea hartzeko eta ukitutako pertsonen zuzenean laguntzeko egiten duten lana txalotzen eta eskertzen die administrazio publikoari, Hiesaren Aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarra edo Sare bezalako gizarte-erakunde eta GKEei eta osasun zein hezkuntza arloetako langilei.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du adierazpen instituzional honekin batera doan adierazpenarekin, zeina Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarrak eta Sarek sustatu baitute heldu den abenduaren 1ean ospatuko den Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunaren kariatara.

3. Nafarroako Parlamentuak GIBaren eta Hiesaren transmisioaren aurkako borrokaren arloan

politika publikoari eman beharreko baliabideak emateko konpromisoa hartzen du, uste baitu prebentzioan inbertitzea osasun publikoko kontua dela, eta, halaber, etorkizunean izurri hau betiko ezabatu ahal izatea bermatuko duela.

4. Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten du sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretu berriari sexu-hezkuntza integraleko eredu baten aldeko apustua egiten delako, departamentuen, osasun eta hezkuntza arloetako profesionalen eta GKE-en artean koordinatuta, eta sexu-osasunaren sustapena eta balizko arriskuen prebentzioa aintzat hartzen direlako.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die abenduaren 1ean ospatuko den Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta antolatzen diren ekimenetan aktiboki parte har dezaten”

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Eranskiña. MANIFESTUA. 2016ko ABENDUAREN 1a

JASO DITZAGUN ESKUAK PREBENTZIOAREN ALOE

Aurten, berriz ere, abenduaren a ospatuko dugu, data garrantzitsua uste dugunontzat gizarte osoak erantzun behar diela GIBari eta Hiesari. Horregatik eskertzen dugu zuen konpromisoa, eta gaur hemen egotea.

GIBarekin lotutako estigmak eta bazterkeriak bizi-bizi diraute eta bizkor lan egin beharko da haiekin bukatzeko. Hala ere, hogeita hamar urte baino gehixeagoan lortu ditugun aurrerapen zientifikoek, batez ere tratamenduetan, itxaropen handia dakarkigute: GIBa izanik, tratamenduak jarraitzen dituztenek bizi itxaropena eta kalitatea bikainak dituzte, oraintsu arte pentsaezinak. Beraz, horiez gain, prebentzio estrategiak bagenitu, gaitza kontrolatzeko eta kutsuaren zabalkundea eragozteko aukera izanen genuke.

Beharrezkoak dira berariazko kanpainak horretarako: sexu seguruagoa sustatzeko, drogen kontsumoaren kalteak murrizteko programak, sexu osasunean hezteak, proba hurbiltzea eta erraztea eta GIBaren diagnostiko goiztiarra.

GIBak infektatutakoen kopurua gora doa. Horregatik saiatu eta ahalegindu behar dugu GIBa prebenitzen, eta prebentzio ahaleginak jendearen izaera eta beharretara egokitzen. Migranteen kasuan, nahitaezkoa da denondako osasun arreta berreskuratzea Espainiako estatuko biztanle guzientzat. Horrenbestez, 2012ko Errege Dekretu bidegabeari indargabetzea litzateke egokiena.

Ezin dugu ahortzi aurrerapen zientifikoak eta arlo horretako gizarte lanak batera joan behar dutela. Gaixotasunarekin lotutako estigmak eta bazterkeriak agerian jarraitzen dute, eta islatzen dira gure garaian zentzurik ez duen moduan. Kon-

paraziora, adineko jende asko ezin da zahar etxetan sartu GIBa duelako, edo ezin du mailegu hipotekario bat hartu edo osasun aseguru bat.

Gizarte osoak buru-belarri murgildu behar du NBEHIESaren helburuak eskuratzeko: 0 kutsatzea eta 0 bereizkeria. Aurten herritar eta agintari guziori deitzen diegu eskuak jasotzera GIBa prebenitzaren alde.

Estatu itun bat eskatzen dugu GIBaren, Hiesaren, estigmaren eta bereizkeriaren aurka. Horregatik galdetzen dugu adostasun politiko zabal bat GIBaren eta Hiesaren erantzunen inguruan, bai prebentzioan eta artatze klinikokan, baita gizartean ere, esparru honetan jokabide egonkor eta berdina ezar dadin, eta estatuko politikatzat har dadin, kontuan hartuta gaixotasunaren egoera Espainiako estatuan. Itun hau bera izenpetu daiteke Nafarroan ere, GIBarik gabeko etorkizuna lortzeko asmoz.

Itun horrek behar zehatz batzuk ditu:

- Aitortza, babesa eta diru-laguntzak eremu horretan diharduten elkarteei. Berehala martxan jartzea Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko dekretua gizartean, osasungintzan eta hezkuntzan.

- GIBari buruzko berariazko prestakuntza irakasleentzat eta osasungintzako eta gizarte arloko langileentzat, batez ere Oinarrizko Osasun Laguntzakoentzat ..

- GIBa "gaixotasun infekzio-kutsakorren" zerrendatik kentzea. .

Gauza asko lortu ditugu eta ildo horretan lanean jarraitu nahi eta behar dugu guzian alde, bereziki GIBarekin bizi zaretenen alde, zuen familiakoen eta adiskideen alde. Ezin ditugu ahortzi zendu ziren ekintzaileak. Haiei zor diegu aurrera egitea GIBaren kontrolean gure lan, bultzada eta ahaleginek.

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitatea zorientzen baitu Quacquarelli Symonds-ek egindako unibertsitateen enplegagarritasun-rankingan lortutako tokia-rengatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitatea zorientzen du Quacquarelli Symonds-ek egindako unibertsitateen enplegagarritasun-rankingan lortutako tokiarengatik.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitatearen hezkuntza-lana aintzatesten du.

3. Nafarroako Parlamentuak eskertu egiten du Nafarroako Unibertsitateak Nafarroari nazioartean ematen dizkion ospea eta irudi ona.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak premiatzen baitu errefuxiatuak Espainiara lekualdatzeko prozesua azkartzera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du nabarmen azkartu dezan errefuxiatuak Espainiara lekualdatzeko prozesua, horiek birkokatuz eta birfinkatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du aurreikusitako epean bete ditzan Europar Batasunarekin hitzartutako konpromisoak, 17.337 pertsona hartzekoa.”

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Tuterako Udalak eskatu du 61 ikaspostu baimendu daitezkeen "Fernando Remacha" Musika Kontserbatorioan. Nafarroako Gobernuak zer erantzun dio?

Iruñean, 2016ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako galdera, Prestazio Handiko Trena dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Prestazio Handiko Trenari buruz Kontuen Ganberak oraintsu argitaratu den txostenak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrera argia har dezan auzi horretan.

Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera?

Iruñean, 2016ko azaroaren 22an.

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza planean sexu-indarkeria artatze aldera hartutako neurriei eta berariazko baliabideei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza planean sexu-indarkeria artatze aldera hartutako neurriei eta berariazko baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erkundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer neurri eta baliabide berezi hartu dira Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza planean baitan, legean, Istanbulgo hitzarmenean eta "Cedaw sombra" plataformaren gomendioetan jasotakoari dagokionez?

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuekiko itunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lau alderdien borondatea da Nafarroako itunpeko ikastetxe pribatuekiko itunei amaiera ematea eta itun horiek ez luzatzea. Nafarroako Gobernuko lehendakaria horrekin ados al dago?

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba foru parlamentaria

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernua premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernua premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen 2016ko apirilaren 20an. Haren bidez, Gobernua premiatu zuen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan.

Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu edo egiten ari da mozio hori betetzeko?

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako Departamentuak idatziz erantzun diezaien:

Zeintzuk dira Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko herrietako langabeziari buruzko zifrarik gaurkotuenak?

Zeintzuk dira herri horietako langabetuen ezaugarriak?

Garapen Ekonomikorako Departamentuaren ustez, Nafarroako Ubidea jarduera ekonomikoa

sortzen laguntzen duen eta aldi berean Ebro ibaia-
ren eskuineko ibai-bazterreko herrietako egoera,
langabeziak gogor zigortutako herri horietakoa,
arintzen lagundu dezakeen azpiegitura bat al da?

Horri buruzko txostenik edo analisisirik egin al du
legegintzaldi hau hasi zenetik?

Departamentuak zer ondorio ateratzen ditu
Kontuen Ganberak Nafarroako Ubidearen lehe-
nengo fasearen ekonomia- nahiz lan-ondoreari
buruz egindako analisitik?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ateratako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztzen du, Landa Garapeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak zer ondorio atera ditu Nafarroako Erriberako ureztatzaile elkarteei egindako inkesten emaitza ezagutu ondoren?

Departamentuaren ustez, ureztatzaile-elkarteen beharizan guztiak berdinak al dira?

Banakako zer ondorio ateratzen du Alhama ibaiko, Aragoi ibaiko, Ebro ibaiko. El Ferialgo, Barranco Saladoko, Lodosako Ubideko, Morante urtegiko, Lodosako ubideko ureztatzaile-elkarteei, Tausteko Ubideko ureztatzaile-sindikatuari eta Canal Imperial de Aragón ureztatzaile-elkarteari egindako inkestetatik?

Departamentuaren ustez, ba al dago elkarterik, batik bat Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterrean, ureztatzeko ura eskatzen ari denik? Nafarroako Ubidea al da konponbiderik egingarriena?

Zer dela-eta ez da egin Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterrearen analisi zehatz eta berariazko-rik?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera Nafarroako Gobernuak Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin izandako kontaktuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer hartu-eman izan du Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin Nafarroako Ubidearen bigarren faseari ekite aldera?

Zehaztu datak, parte-hartzaileak, jorratutako gaiak eta, halakorik egon bada, ondorioak.

Laster hartu-emanik izatea aurreikusten al duzue?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak darabiltzan epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapeneko Departamentuak zer epe darabil Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen aitzinean iragarri zituen aukerak direla-eta?

Zehaztu egutegia.

Ukitutako toki entitateekin eta ureztatzaile-elkarteekin aztertzea aurreikusten al duzue?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik darabilen Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Garapen Ekonomikorako Departamentuak inolako txostenik edo analisirik al darabil Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke hasierako aurreikuspenen aitzineko aukerei buruz?

Noiztik?

Zer erakunde arduratu da hori egiteaz?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarten edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak inolako informaziorik jaso duen ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarten edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapeneko Departamentuak inolako informaziorik jaso al du ureztatzaile elkarte edo sindikatuen, toki entitateen, elkarten edo lehen sektoreko kolektiboen aldetik, Nafarroako Erriberan nekazaritza edo abeltzaintza erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz?

Baiezkoan, zehaztu.

Departamentuak aurreikusten al du inolako hartu-emanik izatea talde horiekin auzia aztertzeko?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan egingen dituen jarduketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak lurzati-berrantolamendua dela-eta hurrengo urteotan egingen dituen jarduketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapeneko Departamentuak zer jarduketara eginen ditu hurrengo urteotan lurzati-berrantolamendua dela-eta?

Zer herritan? Zer aurrekontu-beharrizan uste du egonen direla?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso duen Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Garapen Ekonomikorako Departamentuak enpresen, toki entitateen, elkarteen edo enpresaburuen aldetik inolako informaziorik edo eskaerarik jaso al du Nafarroako Erriberan industria-erabilerarako ura bermatzeko beharrari buruz?

Baiezkoan, zehaztu.

Hartu-emanik izanen al du talde horiekin auzia aztertzeko?

Ba al dago industria-proiekturik, behar adinako ur-hornidura edukitzeko zain dagoena Nafarroako Erriberan ezartzeko?

Ba al dago hirigintza-garapenik, gizakientzako edo industrierako hornidura Nafarroako Ubidearekin bermatu duenik eta gauzatzeko zain dagoenik?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Toki Administrazioiko Departamentuak Osasun Departamentuarekin izandako kontaktuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapeneko Departamentuak izan al du inolako hartu-emanik Osasun Departamentuarekin legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea egin eta gero bertako ura jaso behar zuten herrietako uraren kalitatea dela-eta?

Zer egunetan izan ziren? Nork parte hartu zuen eta zer ondorio atera ziren?

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu duen, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean

bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentualdeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Osasun Departamentuak gorabeherarik detektatu al du, legegintzaldia hasi zenez geroztik, Nafarroako ubidearen bigarren fasea eraikitzen denean bertako ura jaso behar duten herrietako edateko uraren kalitatean?

Zehaztu gorabeherak zein herritan eta zein egunetan gertatu ziren.

Corellan, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Geoalcali S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Geoalcali S.L.k sustatutako Muga meategiaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa Parlamentuko Taldeko parlamentariak, Ganberako Araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Muga meategiaren proiektuarekin lotutako Geoalcali Fundazioa meategia eraikiko litzatekeen

eskualdeko hainbat udalei lankidetzeta eta babesa eskaintzen ari zaie, besteak beste horretarako hitzarmenak sinatuz edo laguntza ekonomikoak emanez. Udal horiek, hain zuzen ere, proiektuak aurrera egiten badu, jarduera edo ekintza jakinetarako baimenak eman beharko dituzten horiek berak dira.

Nafarroako Gobernuak ba al du lankidetzeta eta babesa emateko hitzarmen edo bestelako urrats horien berri? Ezagutzen ditu mugimendu horiek guztiak?

Zenbat eta zein dira udal horiek?

Muga proiektuari baimena Estatuko administrazioak eman behar dio, Nafarroako Gobernuak eta Aragoiko Gobernuak horretarako agindua eman baitzioten. Hala ere, maila xeheago batean, udal ere baimen batzuk eman beharko dituzte. Proiektuari dagokion prozedura osoan, zein dira, zehazki, udalen eskumena diren baimen administratiboak eta urratsak?

Iruñean, 2016ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña.

Galdera, Edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Edari azukredunen produkzioa zegapetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Estatuko beste lurralde batzuetan proposatu da edari azukredunen produkzioa zegapetzea. Horri dagokionez, parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen zegapetze hori dela-eta, eta ea zerga hori ezartzeak zer eragin izan lezakeen Ogasun Publikoaren diru-bilketari begira.

Iruñean, 2016ko azaroaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro